

BABES-PROTOKOLOA

HAUR ETA NERABEEN KONTRAKO INDARKERIARI AURRE EGITEKO

EUSKALERRIKO ESKAUTAK BIZKAIA

Plaza Barria 4, 3º | 48005 Bilbao | C.I.F. G-48298665 | bizkaia.eskaut.org | eeb@eskaut.org



bbk 


EDE
FUNDAZIOA



euskalerriko
eskautak
bizkaia

A young child with light hair, wearing a dark blue t-shirt and light blue shorts, is hugging a large tree trunk in a forest. The child's face is partially visible, looking down with a gentle expression. The background is a soft-focus forest scene with green foliage and tree trunks.

PROTOKOLOAREN AURKIBIDEA

1. SARRERA. HAURRAK BABESTEKO KONPROMISOA, HAURREN KONTRAKO INDARKERIARI AURRE EGITEKO	05
2. PROTOKOLOAREN APLIKAZIOAN EUSKALERRIKO ESKAUTAK BIZKAIA FEDERAZIOAREN JARDUKETA GIDATU BEHAR DUTEN OINARRIZKO PRINTZIOAK	07
3. INDARKERIAREN KONTZEPTUA ETA TIPOLOGIAK	11
4. KASUAK HAUTEMATEA. HAURRAREN LEKUKOTASUNA	17
5. HAUTEMATEKO ETA ERANTZUTEKO PROTOKOLOA	18
5.1. Protokoloaren helburuak	18
5.2. Protokoloaren atal nagusiak	19
5.3. Jarduketa-fluxugrama: larrialdiko protokoloa eta protokolo arrunta	24
6. HARREMANETARAKO PERTSONA	27
ERANSKINA	
Gertakariaren txostenaren eredia	29

SARRERA

Euskalerriko Eskautak Bizkaia erakundearen barnean hurrei zuzentzen zaien espazio orok toki segurua izan behar du, indarkeria orotatik aske egongo den toki segurua. Eta, horrez gain, haurren garapenerako espazio horietatik kanpo dagoen beste edozein ingurunetara ere hedatu behar du indarkeriari aurre egiteko babes horrek.

EEBn dabilzan haurrak babestu ahal izateko, funtsezkoa da, alde batetik, indarkeriaren prebentzioa lantzea (haurrentzat seguruak eta gertukoak izango diren azpiegiturak izanez, bai eta ondo prestatutako profesionalak edota sentibilizatutako eta prestatutako haurrak eta familiak ere); eta, bestetik, egunerokoan agertzen diren indarkeria-kasuak hautemateko eta erantzuna emateko bide egokiak jorratzea. Ildo horretatik, Euskalerriko Eskautak Bizkaiaren jarduera-eremuak ingurune pribilegiatuak dira erakunde horretako profesionalak indarkeria modu oro hauteman dezaten eta dagokion erantzuna eman diezaioten kasu bakoitzari. Haurrekin eta familiekin etengabe lan egiteak eta horien errealitatea ezagutzeak indartu egiten dute, hain zuzen, posizio pribilegiatu hori.

APLIKATZERAKOAN ERAKUNDEAREN JARDUKETA GIDATU BEHAR DUTEN OINARRIZKO PRINTZIOAK

2

A

HAURRAREN EDO NERABEAREN INTERES GORENA

Protokoloaren barneko jarduketa orok printzipio horren mende egon behar du. Horrek esan nahi du hartzen den erabaki orok, lehenik eta behin, haurrak bere eskubideez erabat eta modu eraginkorrean gozatzeko duen aukera bermatu behar duela, eta haurraren interesak lehentasun osoa izan behar duela beste interes ororen gainetik (ekonomikoak, izen onari lotutakoak, etab.) hari dagokion edozein erabaki hartzerakoan.

Zer elementu hartu behar dira kontuan haurraren interes gorena ebaluatzerakoan? (Haurren Eskubideen Batzordearen 14. ohar orokorrean eta Adingabearen Babes Juridikorako Lege Organikoan jasotzen dira).

- Haurraren adina eta heldutasuna.
- Haurraren berdintasuna eta diskriminazio-eza bermatu beharra.
- Haurra benetan integratu eta gara dadin hartzen diren irtenbideen egonkortasun beharra; eta egoera material edo emozional orok haurraren nortasunean eta etorkizuneko garapenari begira adieraz dezakeen arrisku oro murriztea.
- Helduarora iragateko eta independentziaz jokatzeko prestatzea, bakoitzaren ezaugarri eta inguruabarrak kontuan hartuta.
- Haurraren iritzia.
- Haurraren nortasuna.
- Familia-ingurunea zaintzea eta harreman pertsonalei eustea.
- Haurra zaintzea, babestea eta segurtasuna ematea.
- Haurrak osasunerako duen eskubidea.
- Haurrak hezkuntzarako duen eskubidea.
- Kasu zehatz horretan garrantzitsutzat jotzen diren eta haurraren eskubideak errespetatzen dituzten gainerako haztapen-elementuak.

B

HAURRAREN BABES OSOA

Haurraren zaintzaz arduratzen diren helduek babes emango dien ingurune segurua bermatu behar diote haurrari, haurraren eskubidea baita hori, horrek erabateko garapena ahalbidetu diezaion eta bere eskubide guztiez baliatzeko aukera izan dezan; horien barruan sartzen da, hain zuzen, inolako indarkeria modurik jasan behar ez izatea.

C

JARDUKETEN KONFIDENTZIALTASUNA

Ezinbestekoa da indarkeria-kasu bat izan daitekeen egoera batean sartuta dauden pertsonen identitatea gordetzea, horien eskubideak bermatu ahal izateko. Jarduketa guztiak erregistratuko dira, eta zuzenean kasu horietan eskumena duten pertsonak soilik izango dute sarbidea horietan.

D

KOMUNIKAZIOA ETA JAKINARAZPENA

Erantzun-protokoloaren azken xedea, beti, komunikazioa eta jakinarazpena dira, eta ez ikerketa, eskumena duten erakunde publikoei baitagokie hori (gizarte-zerbitzuak, Ertzaintza, fiskaltza eta epaileak).

E

ERANTZUNAREN ERAGINKORTASUNA ETA ARINTASUNA

Euskalerriko Eskautak Bizkaia erakundea osatzen duten pertsona guztiak jakin behar dute nola jokatu den indarkeria-kasu baten aurrean. Ezinbestekoa den esku-hartze minimoa egingo da, berriro biktima bihurtzea saihestuz; hau da, gure jarduketaren ondorioz berriro haurrari sufriaraztea saihestuko da. Jarduketak berehala egingo dira, proportzionalak izango dira, eta erantzun eskasa eman izanagatik biktimari beste kalte psikologiko batzuk egitea saihestuko da.



INDARKERIAREN KONTZEPTUA ETA TIPOLOGIAK

3

Haurren kontrako indarkeria definitzeko, esan daiteke pertsona batek edo talde batek indar fisikoa edo boterea berariaz haur edo nerabe baten kontra erabiltzea edo erabiltzeko mehatxua egitea dela, haren osasunari, biziraupenari, garapenari edo duintasunari kalte eginez edo kalte egiteko arriskuarekin (Paulo Sérgio Pinheiro, Indarkeriari buruzko mundu mailako txostena).

Haurren kontrako indarkeria ezin da justifikatu inoiz, eta irmoki baztertu behar da eta egin behar da haren aurka, hartzen duen forma hartzen duela. Haurren gaur egungo eta etorkizuneko garapenean eta ongizatean ondorio negatiboak izateaz gain, gizaki diren aldetik duten duintasuna ukatzea ere badakar berekin.

Modu askotara ager daiteke haurren kontratuko indarkeria, indarkeriaren izaera kontuan hartuta, eta, Osasunaren Mundu Erakundeak indarkeriari eta osasunari buruzko mundu mailako txostenean biltzen duen sailkapenari jarraiki, lau indarkeria mota nagusi bereizten dira: indarkeria fisikoa, indarkeria emozional edo psikologikoa, zabarkeria edo arretarik eza, eta sexu-indarkeria.

INDARKERIA-TIPOLOGIAK

INDARKERIA FISIKOA

Indarkeria modu nabarmenena da, kalte fisikoak eragiten dituena. Modu askotara ager daiteke: kolpeak, erredurak, mutilazioak, astinduak, jipoiak, pozoitzea, estupefazienteak ematea edo eskueran jartzea edota itotzea, esaterako.

Adierazle hauek izan ditzake, besteak beste:

- Behin eta berriro zauriak edo erredurak izatea, eta haurrak ez izatea horietarako azalpenik.
- Norbaitekin egoteko beldurra.
- Neurrigabeko erreakzioak fisikoki ukitzean.
- Beste pertsona batzuekiko oldarkortasuna.
- Jokabide autosuntsitzailleak.

INDARKERIA EMOZIONALA

Haurren eta nerabeen ongizate emozionalari eragiten dioten ahozko erasoak eta eraso psikologikoak dira, hala nola mehatxuak, irainak, umiliazioak, inor barregarri uztea, xantaia edo manipulazioa, bakartzea eta taldetik kanporatzea.

Adierazle hauek izan ditzake, besteak beste:

- Atzerapenak heltze-ibilbidean.
- Norberarekiko gutxiespena erakusten duten jarrerak.
- Jokabide neurotikoak.
- Muturreko erreakzioak huts egiten denean.
- Egoera berriekiko beldur bizia.

ZABARKERIA

Haurraren esparru fisiko, psikologiko eta afektiboan, elikaduran edo babesaren ikuspegitik haren beharretan arretarik ez jartzea dela esanez definitzen da; hainbat kalte eragin ditzake arreta falta horrek haurraren garapenean. Indarkeria mota horretan, pertsona helduek ez dute behar bezala betetzen beren babes-funtzioa, beren esku duten botere hori, haurra zaintzeko, elikatzeko, artatzeko edo mugak jartzeko modu positiboan erabil dezaketena; alhora utz dezakete. Zenbait kategoria bereizten dira mota honen barnean:

- Arduragabekeria fisikoa: zaintzen ez direlako edo babesten ez direlako gertatzen da, edo haurren oinarrizko beharrei kasurik egiten ez zaienean, hala nola elikadurari, etxebizitza beharriari, higieneari edota janzkera egokiari.
- Arduragabekeria emozionala: maitasuna falta denean edo babesa ematen ez zaienean, enpatiarik ez dagoenean edo haiek zaintzeko prest dagoen inor ez dagoenean,

batez ere egoera kaltegarrietan daudelako, hala nola indarkeriazko harremanetan, alkoholaren edo drogen kontsumoa gehiegizkoa denean, etab.

- Osasun fisikoarekiko edo buru-osasunarekiko arduragabekeria: haurrak behar dituen osasun-arreta eta zainketak ematen ez zaizkionean.
- Hezkuntzaren esparruko arduragabekeria: haurren zaintzaileek eskolatzearen inguruko arauak betetzen ez dituztenean eta haurren hezkuntza eta sozializatorako beste alderdi batzuez arduratzen ez direnean.
- Abandonua: zaintzaileek ez dituztenean betetzen beren guraso-ardurak inoiz.

Adierazle hauek izan ditzake, besteak beste:

- Irtenbiderik eman ez zaien arazo medikoak.
- Etengabe gosea izatea.
- Higiene txarra edo egoera txarrean dagoen arropa.
- Harremana sozialik ez izatea.
- Jokabide suntsitzaileak.

SEXU-INDARKERIA

“Adingabea den pertsona baten eta pertsona heldu baten arteko kontaktu eta interakzioei” dagokie, “pertsona helduak adingabea erabiltzen duenean bere burua, haurra edo hirugarren bat sexualki

estimulatzeko. 18 urtetik beherako bat ere izan daiteke abusu horren eragilea, pertsona hori biktima baino dezente zaharragoa denean, edota erasotzailea den adingabe horrek botere- edo kontrol-harremana duenean bestearekiko”. Sexu-abusuarekin batera, kontaktu fisikoa egon daiteke (igurtzialdiak, masturbazioa, ferekak, penetrazioa...), edo kontaktu fisikorik ez izatea ere gerta daiteke (pertsona helduen arteko sexu-harremanak ikustera behartzea haurra, exhibizionismoa, sexuarekin lotutako txantxak edo umiliazioak...). Sexu-abusuen barnean, nahitaezkoa da zenbait desberdintasun bereiztea:

- Sexu-abusua eta -erasoa: sexu-erasoan, sexu-indarkeriaz gain indarkeria fisikoa ere erabiltzen da, eta horixe da aldea.
- Exhibizionismoa: sexu-organoak edo sexu-jokabideak erakustea, kontaktu fisikorik izan gabe.
- Sexu-esplotazioa: abusuari berari abusu horren komertzializazioa eransten zaionean diru truke edo haur edo nerabearentzat beharrezkoak diren beste ondasun batzuen truke. Haurren sexu-esplotazioaren barnean sartzen dira:
 - Haurrak eta nerabeak prostituziorako erabiltzea. Beste pertsona batzuekin sexu-harremanak izatera behartzen dituzten haurrak eta nerabeak dira. Sexu-abusuak pairarazten zaizkie, eta ekonomikoki eta bizi duten indarkeria psikologikoaren edo axolagabekeria-egoeren bidez esplotatzen dituzte, nahiz eta batzuetan beraiek onartzen dituzten halakoak.
 - Haurren sexu-abusuarekin lotutako irudiak edo erreproduzioak (izendapen okerra erabiliz, “haur-pornografia” esaten zaiona).

Haur edo nerabe batek ezin du eman inoiz baimena bere sexu-harremanak grabatu eta komertzializa ditzaten. Sexu-abusuen irudiak dira egiaz, Interneten komertzializatzen direnak. Irudi horiek edukitzea, kontsumitzea, produzitzea eta banatzea delitu dira Euskadin.

- Haurren eta nerabeen trafikoa, sexu-esplotaziorako. Haur bat edo nerabe bat prostituziorako toki batetik bestera eramaten denean; herrialdearen barnean toki batetik bestera eraman daiteke, edo herrialde batetik bestera.
- Haurren sexu-esplotazioa turismoarekin edo bidaiekin lotutako egoeretan, haurrak edo nerabeak sexualki behartzeko heldua herrialdearen barruan edo herrialde batetik bestera lekualdatzen denean, inpunitate-baldintza handiagoez baliatuz horretarako.
- Sare sozialen bidezko sexu-abusua:
 - Baimenik gabeko sextinga eta sexu-estortsioa: haur edo nerabe bati argazkiak eginaraztea, bere burua biluzik edo bere parteak agerraraziz, edo posizio erotikoetan jarrita; eta horiek zabaltzea edo zabaltzeko mehatxua egitea, haur edo nerabe horiengandik zerbait lortu ahal izateko.
 - Groominga: pertsona heldu batek bere adinaren edo nortasunaren inguruan haur edo nerabe bat engainatzea, sexu-harremanak izateko xedez parekoen arteko bikote-harreman bat gauzatzen ari direla sinetsarazita.



- Haur edo nerabe batekiko jokabide umiliagarriak edo abusuzkoak grabatzea eta zabaltzea.

Adierazle hauek izan ditzake, besteak beste:

- Haurrak edo nerabeak duen adinerako sexuaz gehiegi jakitea edo sexu-izaerako jolasak egitea.
- Lesioak genital edo uzki inguruan, inolako azalpenik ez dutenak edo modu jarraituan ageri direnak.
- Sexu-transmisiozko gaixotasunak.
- Jarrera hotza edo barrenkoia.
- Pertsona batzuekiko beldurra edo fobiak agertzea.
- Kezka arropak erantztean; jantziak bata bestearen gainetik jantztea, edo jantzita lo egitea.
- Loaren edo elikaduraren nahasmendua.
- Zereginak betetzerakoan, jarreretan edo jokabidean, muturreko aldaketak edo jokabide konpultsiboak.

Horrez gain, hona hemen hauren kontrako indarkeriarekin lotuta aurki ditzakegun beste adierazle batzuk:

- Jazarpena eta ziberjazarpena.
- Tortura eta tratu ankerrak edo apalesgarriak.
- Jarduera tradizional kaltegarriak.
- Genero-indarkeriaren biktima diren haurrak.

- Genero-indarkeriaren biktima diren amen seme-alabak.
- Jaio aurretiko tratu txarrak.
- Menpekotasun kimiko edo farmazeutikoa.
- Lan-esplotazioa.

Agerbide horien ondorioak aurreko lau kategoria horietako batean txerta daitezke.

Horrez gain, indarkeria-kasuren bat jasateko arriskua areagotu egin dezakete zenbait zaurgarritasun-faktorek, hala nola dibertsitatea funtzionalak, jatorriak edo generoak.



KASUAK HAUTEMATEA. HAURRAREN LEKUKOTASUNA

4

Indarkeria-egoeren adierazgarri diren zantzu nabarmenak ditugunean edo susmora sortzen denean, hautematea da abiapuntua, ondorengo jarduketa guztiak ekarriko dituen eta jarduketa-protokoloa abiaraziko duena.

Askotan, zaila izaten da indarkeria-egoerak identifikatzea, batez ere Euskalerriko Eskautak Bizkaia erakundetik kanpoko jardueretan gertatzen direnean edo familia barruan gertatzen direnean; edota indarkeriak aztarnarik edo seinale fisikorik uzten ez duenean. Dena den, zenbaitetan funtsezkoa da detekzio goiztiarra, haurraren babesa ziurtatzeko eta haurraren garapenean indarkeria horren inpaktua ahal beste murrizteko.

Hainbat modutara hauteman daitezke horrelako egoerak:

- Haurrak emandako lekukotasunaren bidez.
- Susmoa sorrarazten diguten adierazleak daudelako:
 - Seinale edo lesio fisikoak haurraren.

- Haurraren jokabidean behatutakoa: jokabide-aldaketak edo haurraren adinarekin edo heldutasun mailarekin bat ez datozen jokabideak.
- Haurraren arduradun diren helduek edo senitartekoek erakusten dituzten jokabideek, ohiturak, kompetentzia sozial baxuek edo arrisku-jokabideek indarkeria-egoera baten susmoa sorraraztea: edota kasuari irtenbidea ematerakoan jarrera defentsiboa edo ez laguntzekoa hartzea.
- Indarkeria-egoera bat ezagutzen duten hirugarrenek emandako lekukotasunaren bidez.

Horrelako kasuak behar bezala hautemateko, garrantzitsua da ondo ulertzea zer indarkeria mota dauden eta zein diren horietako bakoitzaren berariazko adierazleak, horrela indarkeria-egoera ongi hauteman dezagun.



HAUTEMATEKO ETA ERANTZUTEKO PROTOKOLOA

5

5.1. PROTOKOLOAREN HELBURUAK

1. Haurren aurkako indarkeria-kasuak hautemateko eta horiei erantzuteko tresna bakarra izatea, esku-hartze guztiei aplikatzekoa.
2. Haurren aurkako indarkeria-egoerei erantzuteko eraginkortasuna eta azkartasuna hobetzea.
3. Edozein indarkeria-egoeraren aurrean haurri kalitatezko erantzuna bermatzea.
4. Erantzuna sistematizatzea, Euskalerriko Eskautak Bizkaia erakundeko profesionalen prestakuntzaren edo borondate onaren mende egon ez dadin.
5. Delitutzat har daitezkeen kasuetan, froga-zantzuak gordetzea.
6. Indarkeriaren aurrean Haur eta Nerabeen Babes Integralari buruzko Legearen aurreproiektuak nahitaezkoztat jotzen du indarkeriaren aurrean jarduteko protokoloak xedatzea eta hezkuntza formalaren eta ez-formalaren nahiz aisialdiaren eta denbora librearen arloetan ongizateko eta babeseko koordinatzaile bat izendatzea. Euskalerriko Eskautak Bizkaia erakundearen barnean, ordezkariak hartuko du bere gain ardura hori. Ordezkar hori arduratuko da prestakuntza-planak koordinatzeaz, jardueren arriskuak gainbegiratzeaz eta protokoloaren hedapena eta ezagutza bermatzeaz.

5.2. PROTOKOLOAREN ATAL NAGUSIAK

1

HAUTEMATEA EDO IDENTIFIKATZEA

Indarkeria-kasu bat hautemateko arrazoiak hainbat izan daitezke: biktima den haurraren lekukotasuna, indarkeria jasaten ari direla pentsarazten duten adierazleak edo egoeraren berri duen hirugarren pertsona baten lekukotasuna.

Kasua hautematen duen pertsonak abiaraziko du protokoloa, bere taldeko koordinatzailearekin batera, eta azken horrek Euskalerriko Eskautak Bizkaia erakundeko ordezkariari jakinaraziko dio.

2

GERTAKARIAREN TXOSTENA

Indarkeria-egoera hautematen duen pertsonak taldeko koordinatzailearekin batera bete behar duen dokumentua da, bi horiek pertsona desberdinak badira. Gertakariaren txostena eguneratu egin behar da, aldian behin kasuaren jarraipena egiteko. Dokumentu hori izango da aurrerago egin beharreko jarduketan oinarria (adibidez, gizarte-zerbitzuei, fiskaltzari edo Ertzaintzari egindako jakinarazpenean). Eranskinetan, gertakariari buruzko txostenaren ereduak jaso da.

Txostena gizarte-zerbitzuetara bidaltzea: zuzenean eta eskura emango da edo posta elektronikoz bidaliko da, eta fitxategia erantsiko zaio mezuari, gertakariari buruzko txostenaren eredu beteta eta enkriptatuta duela. Nolanahi ere, hartu-agiri bat eskatu beharko da, egindako jarduketara jasota gera dadin, bai eta, gutxienez, bidalitako mezuaren kopia bat ere. Txosten horrez gain, administrazioak lurralde bakoitzean horretarako xedatzen dituen inprimakiak ere bidali beharko dira.

Euskalerriko Eskautak erakundeko ordezkaria arduratuko da gertakariaren txosten guztiak horretarako sortutako datu-base batean begiratzeaz.

3

KASUAREN PREMIAZKOTASUNAREN BALIOESPENA

Kasua hautematen duen pertsonak berorren premiazkotasuna balioetsi beharko du lehenik, bai eta eragindako haurrak duen zaurgarritasun-maila ere.

Balioespen horretatik abiatuta, larrialdiko protokoloa edo protokolo arrunta aktibatuko da.

- **Larrialdiko protokoloa:** haurren ustezko tratu txarren kasu bat hautematen denean eta haurraren osasuna, segurtasuna edota

osotasuna arriskuan daudela eta familia barruko tratu txarrak/ abandonua sumatzeko elementuak daudela jotzen denean edo ziurtasunez jakiten denean.

- **Protokolo arrunta:** gainerako kasuak.

Larrialdiko protokoloa osasun-arreta behar duten lesio fisikoak gertatzen direnean abiaraziko da, bai eta egoeraren larritasunak hala eskatzen duenean ere (adibidez, sexu-abusua). Berehala jokatu beharko da, bai haurrari diagnostiko-unitate espezifiko bat duen osasun-zentro batera lagunduz (osasun-zentro desberdinetara joanez gero sortuko litzatekeen balizko biktimizazioa saihestuz horrela) eta dagokion protokoloa aktibatuz, bai fiskaltzari edo Ertzaintzari eta gizarte-zerbitzuei dagokien jakinarazpena eginez. Haurrari garraio publikoan lagunduko zaio, beharrezkoa denean, eta, bestela, begiraleen eskura dauden autoetan.

Euskalerriko Eskautak erakundeko begiraleek ez dute argazkirik egingo, eta haurrari ez zaio eskatuko arropa altxatzeko edo kentzeko, egiaztapenak egiteko xedez. Haurrak bere borondatez erakusten baditu markak, horrela adieraziko dugu. Kasu horietan, haurraren testigantzak ebidentzia-izaera izango du.

Euskadin, gizarte-zerbitzuei jakinarazteko eredu bat dugu, eta kasu bakoitzean bete beharko da. Nolanahi ere, gizarte-zerbitzuei egindako jakinarazpenarekin batera gertakariari buruzko txostena aurkeztu beharko da, behar bezala beteta. Hona egoera horien adibide batzuk:

- Tratu txar fisikoak.
- Familia barruko sexu-abusuaren adierazleak, edo familiatik kanpoko pertsona batek haur edo nerabeari sexu-abusua egin diola adierazten dutenak eta amak, aitak edo legezko

arduradunak ez duenean ezer egiten hura babesteko, bai eta egoera hori agerian uzten duen haur edo nerabe baten testigantza ere.

- Haurra hiltzeko arriskuan edo garatzeko kalte larrian jartzen duen elikadura-zabarkeria larria.
- Haurra edo nerabea abandonatzea, pertsona heldu arduradunik ez dagoelako haren ondoan eta gurasoak (edo arduradunak) aurkitzeko aukerarik ez dagoelako nahiz haiek ezin dutelako artatu (ospitaleratze baten edo antzeko egoera baten ondorioz).

Egoera larria ez denean, zehaztutako protokolo arruntaren arabera egingo dira jarduketak, eta gizarte-zerbitzuetara zuzenduko da kanpo-komunikazioa. Jakinarazpena betebeharra da indarkeria-egoera baten edo tratu txarren berri duen edonorentzat.

Euskalerriko Eskautak Bizkaia erakundeak indarkeria-kasuen detekzioaren aurrean bere gain zer betebeharrak hartu behar dituen zehazteko orduan, komeni da gure ordenamendu juridikoan araututako zenbait gai argi izatea.

Urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak, adingabeen babes juridikoari buruzkoak, honako hau ezartzen du:

13.1 artikulua. - Pertsona edo agintari orok, eta, bereziki, beren lanbideagatik edo eginkizunagatik adingabe baten tratu txar, arrisku edo babesgabezia-egoera bat hautematen dutenek, gertuen duten agintaritzari edo haren eragile hurbilekoenei jakinaraziko diete, adingabeari behar duen berehalako laguntza emateaz gain.



13.4 artikulua. - Edozein informazio-iturriren bidez sexu-askatasun eta -ukigabetasunaren, gizakien salerosketaren edo adingabeen esplotazioaren aurkako delitua izan daitekeen egitateren baten berri duen pertsona orok fiskaltzari jakinarazi beharko dio, zigor-arloko prozesu-legerian xedatutakoaren kalterik gabe.

Haurren ustezko tratu txarren kasuari edo tratu txarrak jasotzeko arriskuari, familiaren inguruabarrei eta biktimaren testuinguruari buruzko informazioa ematea da jakinaraztea. Esku-hartzea ahalbidetzeko beharrezko baldintza da, bai eta betebeharrak legala eta profesionala ere. Tratu txarrak egiaztatze edo berresteko erantzukizuna ez dagokio jakinarazleari, zerbitzu espezializatuak baizik. Jakinarazpen hori izan gabe ezin dira abiarazi hurrei, nerabeei eta haien familiei laguntzeko baliabideak.

Jakinaraztea eta salatzea gauza bera dira? Ez. Jakinarazpenak ez dakar berarekin tratu txarrak eman dituenaren kontrako salaketarik. Gure susmoak agintari eskudunei jakinaraztea da.

Zigor Kodeko 191. artikulua honako hau ezartzen du:

Sexu-eraso, sexu-jazarpen edo sexu-abusuzko delituen kasuan, prozedurari hasiera emateko beharrezkoa izango da laidotuaren nahiz horren lege-ordezkararen salaketa, edo fiskaltzaren kereila, fiskaltzak bertan gertatzen diren bidezko interesak haztatuko baititu. Biktima adingabea, ezgaia edo babesgabea denean, fiskaltzaren salaketa nahikoa izango da.

4

GIZARTE-ZERBITZUEKIKO KOMUNIKAZIOA

Gizarte-zerbitzuei kasuak jakinaraztea eta bideratzea alderdi kritikoa da prozesuaren barruan. Erreferentziazko gizarte-zerbitzuak identifikatuta edukitzea komeni da, azkarrago eta eraginkortasun handiagoz bideratzeko. Alde horretatik, eskauten talde bakoitzak, kasuak bideratzerakoan, erreferentziazko pertsonak identifikatuta izan beharko ditu gizarte-zerbitzuetan, bai gertakari horiek zerbitzu horietatik datozen hurrei eragiten badiete, bai beste jatorri bat badute (ikastetxeak edo beste batzuk). Azken kasu horretan, familiek aurretik gizarte-zerbitzuekin harremanik izan ez dutenean, are garrantzitsuagoa da erreferentziazko langileekiko hurbiltasuna helaraztea, hala dagokien kasuetan babesa dutela senti dezaten.

5

FAMILIEI EDO LEGEZKO TUTOREEI INFORMAZIOA HELARAZTEA

Haurraren legezko arduradun gisa, familiek edo tutoreek egiten diren jarduketan berri izan behar dute uneoro. Familiekiko zeregina hirukoitza da:

- Sortutako egoera konpontzen saiatzea, kasua gizarte-zerbitzuetara bideratu gabe.
- Beharrezkoa bada, protokoloaren eta egin beharreko jardueren berri ematea.
- Familien aldian behingo jarraipena egitea, ahal den neurrian gertaera errepika ez dadin.

6

HAURRARI ONGIZATE EMOZIONALA IZATEN LAGUNTZEA

Egoerak hala eskatzen duenean, haurrak adieraz ditzakeen premiei aurre egiteko behar den laguntza emango da, batez ere haren ongizate emozionalean laguntzeko eta haren ondoan izateko. Hau da, haurrak gurekin une oro lagunduta eta babestuta sentitu behar du. Eskaintzen den laguntasunak kasuaren jarraipenaren parte izan behar du, eta gertakariaren txostenean nahiz kasuak erregistratzeko datu-basean jaso beharko da.

7

KASUAREN ALDIZKAKO JARRAIPENA

Jarraipen horren helburua da haurraren babesari jarraipena ematea eta, hala badagokio, neurri egokiak hartzen jarraitzea. Jarraipena inplikaturako familiarekin (halabadagokio) nahiz gizarte-zerbitzuekin egin behar da. Garrantzitsua da nabarmentzea jarraipenaren helburua bikoitza dela: alde batetik, datu-basean kasuaren bilakaera erregistratzea, eta, bestetik, ardura duen administrazio publikoan eragitea, haurraren aldeko neurriak berehala har ditzan.

8


KASUA ERREGISTRATZEA

Hautemandako kasu guztiak horretarako sortutako datu-basean erregistratu beharko dira. Euskalerriko Eskautak Bizkaia erakundeko ordezkaria arduratuko da erregistro hori eguneratzeaz, kasua identifikatu den taldeko koordinatzaileak emandako informazioarekin. Datu-base bakarra egongo da lurralde osorako, eta Euskalerriko Eskautak Bizkaia erakundeko ordezkariak eta EDE Fundazioko erreferentziazko pertsonak soilik izango dute datu-base horretara sartzeko aukera.




5.3. JARDUKETA-FLUXUGRAMA

LARRIALDIKO PROTOKOLOA



Gertakariaren txostena egiten denean, EEBri eta ordezkariari jakinarazi behar zaio, eta azken horrek kudeatzen duen datu-basean txertatu behar du.

PROTOKOLO ARRUNTA



6

HARREMANETARAKO PERTSONA

Euskalerriko Eskautak Bizkaia erakundeko delegatua

E-maila: eeb@eskaut.org



ERANSKINA

I. ERANSKINA

Gertakariaren txostena, hauren aurkako indarkeria-egoeretan.

I. ERANSKINA

Gertakariaren txostena, haurren aurkako indarkeria-egoeretan.

ERREFERENTZIA-KODEA	
ESKAUT TALDEAREN IZENA	
UDALERRIA	

NORENTZAT	Adib.: Gizarte-zerbitzuak
-----------	---------------------------

INFORMATZAILEAREN DATUAK

Izen-abizenak	
EEBko ordezkariaren telefono-zenbakia	634 505 031
Kargua	
Kargua	

ERAGINDAKO HAURRAREN DATUAK

Izen-abizenak	
Jaiotza-data	
Sexua	
Helbidea	
Telefonoa (berea edo familiarena)	
Zer jardueratan hartzen du parte?	

GERTAKARIEN USTEZKO EGILEAREN DATUAK

Izen-abizenak	
Jaiotza-data	
Sexua	
Helbidea	
Telefonoa (berea edo familiarena)	
Eragindako haurrarekiko harremana	

GERTAKARIEN LEKUKOAREN DATUAK (halakorik badago)

Izen-abizenak	
Jaiotza-data	
Sexua	
Helbidea	
Telefonoa (berea edo familiarena)	
Eragindako haurrarekiko harremana	

FAMILIA-EGOERA

(Familia-egitura deskribatzeko datuak. Adib.: haurra norekin bizi den, droga-kontsumoari buruzko aurrekariak, familia-harremanak, etab)

GERTAKARIARI BURUZKO XEHETASUNAK

Non gertatu den	
Data	
Ustezko egilea	
Gertakariaren deskribapena (haurren hitzak ere adierazi, gertatu dena haurrak berak kontatzen badu)	

HAUTEMANDAKO BABESGABEZIAREN ADIERAZLEAK

(Haurrengan adierazle fisikoak eta portaerarekin lotutakoak dauden adierazi, bai eta gurasoen edo tutoreen portaera-adierazleak ere)

HAUTEMANDAKO BABES-ADIERAZLEAK

(Adierazi kontuan hartu beharreko alderdi positiboak edo loturak. Adib.: familiarekiko harreman positiboaren historikoa, lehenago EEBn parte partu duten anai-arrebak edo senideak dauden)

ERASOTZAILEAREN AURREKARIAK

EEBn izan duen ibilbidearen azalpen laburra. Adierazi, halaber, jokabide desegokiak egon zitezkeela pentsatzea eragin duten gatazka edo egoera deigarriak gertatu den ala ez.

ORAIN ARTE HARTUTAKO NEURRIAK

EGOERAREN BALIOESPENA ETA PROPOSATUTAKO EKINTZAK

BESTELAKO INFORMAZIO INTERESGARRIA

Tokia eta data

Sinadura eta zigilua

Izen-abizenak

Kargua

KASUAREN JARRAIPENA

(Sartu informazioa hurrenkeran kronologikoan, datak eta kasuaren jarraipenari buruzko informazioa adieraziz: jarraipena familiarekin, gizarte-zerbitzuekin eta inplikaturako beste eragile batzuekin)

1. data:

2. data:

3. data:

